

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

5075

AGINDUA, 2023ko urriaren 24koa, Hezkuntzako sailburuarena, Vitoria-Gasteizko (Araba) «Grant Vela School» atzerriko ikastetxe pribatuari irekitzeko eta jardunean aritzeko emandako baimena luzatzen duena.

Aztertu da «Asociación Educación Siglo XXII» erakundearen legezko ordezkariak aurkeztutako eskaera, zeinaren bidez, «Grant Vela School» atzerriko ikastetxe pribatuari (010736 eta 01007816 kodeak) emandako baimena aldatzeko eskatzen duen, Ameriketako Estatu Batuetako hezkuntza-sistemako irakaskuntzak eman ahal izateko.

Espediente hori ezarritako prozeduraren arabera izapidetu da, indarreko arauak eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio, eta arlo horretan eskumena duten erakundeek horri buruzko txostena eman dute.

Arau hauek ikusi dira: Hezkuntzarako eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoa, Espainian atzerriko ikastetxeen araubideari buruzko maiatzaren 28ko 806/1993 Errege Dekretua (otsailaren 12ko 131/2010 Errege Dekretuak aldatua), Euskal Autonomia Erkidegoan atzerriko hezkuntza-sistema bat eta Espainiako eta Euskal Herriko hizkuntza eta kultura irakasten duten unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan Gaztelania eta Literatura, Euskara eta Literatura, eta Geografia eta Historia irakaskuntzak ezarri eta arautzen dituen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko martxoaren 12ko Agindua, eta gai horretan aplikatzekoa den indarreko araudia. Horiek horrela, honako hau:

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Vitoria-Gasteizko (Araba) «Grant Vela School» atzerriko ikastetxe pribaturako eskatutako aldaketa onartzea, eta, hala, Ameriketako Estatu Batuetako hezkuntza-sistemako irakaskuntzak emateko baimena ematea.

Ikastetxea Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeen erregistroan inskribatuko da, erregistroko datu hauekin:

Kode-zenbakia: 010736 (EAE) eta 01007816 (unibertsala).

Izen generikoa: atzerriko Ikastetxe Pribatua.

Izen espezifikoa: «Grant Vela School»

Titularra: «Asociación Educación Siglo XXII»

Helbidea: Arriagako atea, 66.

Udalerria: Vitoria-Gasteiz.

Lurralde Historikoa: Araba.

Irakaskuntza baimenduak: honako hauek dira ikastetxean emango diren Ameriketako Estatu Batuetako hezkuntza-sistemako irakaskuntzak:

– Pre-School Section, 3 eta 6 urte bitarteko haurrentzat, 25 ikaspostutarako edukierarekin.

– Elementary Section, 6 eta 12 urte bitarteko haurrentzat, 35 ikaspostutarako edukierarekin.

Bigarrena.– New England Association of Schools & Colleges, Inc. Commission on International Education (aurrerantzean NEAS&C) delakoak 2023ko ekainaren 23an emandako ziurtagiriaren arabera, baimenaren luzapenak 2024ko abuztuaren 31ra arte izango du balioa, baimendutako irakaskuntzei dagokienez. Egun horretatik aurrera, zentroari emandako baimena NEAS&C-ren zerbitzuek aldeko beste ikuskapen bat egitearen eta erakunde horrek aldeko beste ziurtagiri bat ematearen mende egongo da.

Hirugarrena.– Ikastetxeak baimendutako irakaskuntzak osatu beharko ditu Gaztelania eta Literatura, Euskara eta Literatura eta Geografia eta Historia irakaskuntzekin, 2012ko martxoaren 12ko Aginduan ezarritakoaren arabera.

Laugarrena.– Zentroak martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartutako Eraikuntzaren Kode Teknikoa bete behar du, bai eta indarrean dagoen legerian adierazten diren higiene-, osasun-, akustika-, bizigarritasun-, segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak ere. Baldintza horiek ez betetzearen erantzukizuna zentroaren erakunde titularrari dagokio.

Bosgarrena.– Ikastetxeak indarrean dagoen legeria bete beharko du, eta baimena berrikusteko eskatu beharko du, legezko ordezkariaren bitartez, erregistroko edozein datu aldatu behar denean. Bestela, emandako baimena baliogabetu egingo litzateke.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakiok Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urriaren 24a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.